# NATURKON: GIPUZKOAKO TALDE NATURZALEAK

**SALATURIKO BAIMENIK GABEKO OBRAK ETA BELARTZA-2 POLIGONO BERRIAREN ARTEKO LOTURA: MANIFESTU EKOLOGISTA**

- **Noiz: 2016ko maiatzak 24, asteartea.**
- **Non: Donostiako Udaletxea**
- **Ordua: 10:30**

Aurreko asteetan Belartzako Merkadonako sustatzaileek legearen kanpo egindako jarduketen berri eman genuen publikoki eta nola udaletxeak salatutakoei kasu arduragabea eginagatik

jarduketa irregular horiek natural gune aberats batean ingurumenari eragindako kaltea salatzera Ararteko, Fiskaltza eta Eusko Jaurlaritzara jo behar izan dugun ere.

Interés ekonomiko pribatuak legearen kontran babestuz udal administrazioaren pasibotasun eta konplizidade hau salatutakoen konplexutasuna gainditzen duen pretentsioak dituela xede uste dugu, **begiak ingurumenaren nahitako txikizio batean jarrita Belartza – 2 poligono berria erakitzeko** (behin behineko onartzea oraindik izan ez duen eta berriro ere, une honetan bertan, hiritarren bizkarrean garatzen ari den proiektua).

**Makroproiektu honen ordenazioa ingurumen eta ekosistemen gaineko afekzioa ebaluaziorik gabe aurrera eraman zenez**, elkarte sinatzaileek urgentziko baloroazio bat egin dugu lekuan garrantzizko balore naturalak identifikatuz, babestutako habitatak nahiz mehatxupean dauden flora eta fauna espezieen agerpenak eremuaren ingurumen-garrantzia goraipatzen duelarik.

**Beraz, Gipuzkoako naturzale eta ekologista elkarteen kolektiboak bihar bat egiten dugu manifestu bat igortzeko,**hirigintza indiskriminatu eta sostengaezinaren bandera den proiektu espekulatibo berri honen informazioa publikoa egiteko.